



Iberiar Limnologia Elkartearen XXIII Kongresua



AIL 2026 BILBAO
URA, NATURA, KULTURA

Eka. 22 - Eka. 26 2026

Kod. Z69-26

Mod.:
Aurrez aurrekoa

Edizioa
2026

Jarduera mota
Workshop

Data
Eka. 22 - Eka. 26 2026

Kokalekua
Bizkaia Aretoa-EHU

Hizkuntzak
Gaztelera Ingelesa

Balio akademikoa
50 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

[CASTELLANO](#) / [EUSKARA](#) / [ENGLISH](#) / [PORTUGUÊS](#)

Iberiar Limnologia Elkarteak (AIL) 1981etik dihardu ur-masa kontinentalei—ibaiak, aintzirak, hezeguneak eta urtegiak—buruzko ikertzaileen eta kudeatzaileen arteko topaketak bultzatzen. Jardunaldi horien bidez ezagutza eguneratzea, ikerketa sustatzea eta ezagutza gizartera transferitzea dira helburu nagusiak. Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) AILen XXIII. kongresua antolatzen du Bilbon, 2026ko ekainaren 22tik 26ra. Antolaketa batzordeak interesdunak gonbidatzen ditu limnologiaren ezagutza zientifikoaren aurrerapenetan parte hartzera eta laguntzera, bai eta ezagutza hori ingurumen- eta gizarte-kudeaketa hobetzeko aplikatzera ere. Kongresuak gonbidatutako hizlariekin saio plenarioak, saio tematiko paraleloak, saio bereziak, poster-saioak, kurtsoak, tailerrak, irteera teknikoak eta gizarte-ekitaldiak izango ditu.

ANTOLAKETA BATZORDEA

- Arturo Elosegui (Lehendakaria)
- Maite Arroita (Idazkaria)
- Aitor Larrañaga (Diruzaina)
- Idoia Biurrun
- Luz Boyero
- Leire Méndez
- Sergio Seoane

BATZORDE ZIENTIFIKOA

- Romina Alvarez Troncoso (Universidade de Vigo)
- Pepe Barquín Ortíz (Universidad de Cantabria)
- Jhon Donato-Rondón (Universidad Nacional Colombia)
- Andrea C. Encalada (Universidad de San Francisco de Quito)
- Claudia Feijóo (Universidad Nacional de Luján)
- Verónica Ferreira (Universidad de Coimbra)
- Anna Freixa (Institut Català de Recerca de l'Aigua, ICRA)
- Rosa Gómez Cerezo (Universidad de Murcia)
- Vítor M. Costa Gonçalves (Universidade dos Açores)
- Cayetano Gutiérrez Cánovas (Universidad Rey Juan Carlos)
- Cláudia Pascoal (Universidade do Minho)
- João Pestana (Universidade de Aveiro)
- Andreu Rico (Universitat de València)

OSOKO BILKURAK

- Naiara López Rojo (National Research Institute for Agriculture, Food and Environment (INRAE) - University Savoie Mont Blanc, CNRS, Francia)
- Francisco J. Oficialdegui (Estación Biológica de Doñana (EBD-CSIC), España)
- Patricia M^a Rodríguez González (Universidade de Lisboa, Portugal)
- Victor Saito (Universidade Federal de São Carlos, Brasil)
- Limnologiako ibilbidearen saria (Manuel Augusto Simões Graça)
- Limnologiako tesi onenaren saria (2024 eta 2025eko deialdiak)

SAIO TEMATIKOAK

Saio orokorrak

- SG01. Uretako organismoen kontserbazio-biologia
- SG02. Ibai, estuario, aintzira, urtegi eta hezeguneen ekologia
- SG03. Sistema urtarren prozesuak eta funtzionamendua
- SG04. Ekohidrologia eta lurpeko urak
- SG05. Ekotoxikologia urtarra eta ingurumen-arriskuaren ebaluazioa
- SG06. Mikrobioen ekologia
- SG07. Aldaketa globalak: klima eta giza-jatorriko aldaketak, iraganekoak eta egungoak
- SG08. Espezie inbaditzaileak eta ekosistemen funtzionamendua
- SG09. Ekosistemen leheneratzea
- SG10. Limnologian metodologia eta teknika berriak
- SG11. Ekosistemen zerbitzuak eta ebaluazio-metodologiak

Saio bereziak

- SE01. Ur gezako ekosistemen funtzionamendua azkar aldatzen ari den mundu batean. Ariadna García-Astillero, Guillermo García-Gómez, Ignasi Arranz Urgell y Javier Sánchez-Hernández
- SE02. Ibai-ekologiaren alde iluna: ibaietako hiporreiko eremuaren papera biogeokimikan hobeto ulertzea. Clara Mendoza-Lera, Marina Victoria Ríos y Julia Pasqualini
- SE03. Miguel Alonso, naturalista eta bere aintzirak. Antonio Camacho, Concha Duran, Manuel Toro y Francesc Mesquita
- SE04. Elkarlanerako limnologiako sareak. Javier Pérez, Cayetano Gutiérrez-Cánovas y Juan Rubio-Ríos
- SE05. Ikerketa- eta kudeaketa-erronkak ibai ez-iraunkorretan. María Mar Sánchez-Montoya, Núria Bonada, Núria Cid, Pablo Rodríguez-Lozano y Daniel von Schiller
- SE06. Zientzia eta gizartea lotzen limnologian: zientzia herritarra, hezkuntza eta eragileen parte-hartzea. Maria Soria, Meritxell Abril y Pau Fortuño
- SE07. Ekologia molekularra eta biodibertsitatea: ikuspegi berriak ekosistema akuatikoetan. Jon Garrastatxu, Álvaro Fueyo, Alba M. Losa y Nieves López-Rodríguez
- SE08. Makaronesiako ur kontinentalak: ur-baliabideak, biodibertsitatea eta kudeaketa kontserbaziorako. Núria Cid, Raúl Acosta, Margarita Florencio y Pedro Raposeiro
- SE09. Limnologiatik berrikuntza teknologikora: Naturan Oinarritutako Irtenbideak Europako Uraren Erresilientzia Estrategiaren ekarpen gisa. Ainhoa Gaudes, Julio C. López Doval y Lluís Bertrams Tubau
- SE10. Elkarreragin biogeokimiko eta mikrobiarrak eskala handian ur gezako ekosistemen funtzionamenduan. Nuria Perujo y Anna Freixa
- SE11. Berdintasuna eta inklusioa sustatzea limnologian: lorpenak eta etorkizuneko erronkak. María Sánchez-Montoya, Mireia Bartrons, Anna Freixa y Maria Anton-Pardo
- SE12. Ur masa txikien kontserbazioa eta leheneratzea: aurrerapenak eta erronkak. Serena Sgarzi, Lena Fehlinger y Sandra Brucet
- SE13. Latinoamerikako hezeguneak: biodibertsitatea, kudeaketa jasangarria eta erronka sozioingurumenalak XXI. mendean. Sylvina Casco
- SE14. Arriskuan dauden urtegiak: erronka berriak eta uraren kalitatearen kudeaketarako irtenbideak. Sara C. Antunes, Sara Rodrigues, Jesús Delegido y Catarina Guimarães
- SE15. Ur gezako ekosistemen dispersioa: kuantifikazioa, mekanismoak eta aplikazioak. José María Fernández-Calero y Núria Bonada

EKINTZAK

Ikastaroak (paraleloan)

- 1. ikastaroa. Espezieen banaketa ereduak. Janine Pereida da Silva eta Federica Rossetto
- 2. ikastaroa. Ur kontinentalen teledetekzio sinplifikatua Google Earth Engine erabiliz. Camille Minaudo
- 3. ikastaroa. Artikuluetatik pertsonetara: dibulgazio zientifikoa esparru akademikoan eta sozialean. Kamil Hupalo, Maria Soria eta Pau Fortuño

Tailer teknikoak (paraleloan)

- 1. tailerra. Egin Ezazu Zeuk ingurumen-sentsoreetan (in)esperientziak partekatzen. Cedric Tentelier
- 2. tailerra. Komunikazio zientifiko inklusiboa: ikerketarako eta lidergorako tresna praktikoak. Gender and Science AIL group
- 3. tailerra. eADNa martxan: etorkizunerako prestatutako Uraren Esparru Zuzentarau baten ezarpena bultzatzea. Jovenomics
- 4. tailerra. Jasangarritasunerako aldaketaren aurrean dauden oztopo psikosozialak. Laura Vozmediano
- 5. tailerra. Ez da zerbitzu bat: ilustrazio zientifikoaren sinbiosia. Jagoba Malumbres-Olarte
- 6. tailerra. Galderak sortzearen artea: galdetegi kuantitatiboetarako sarrera sozio-limnologian. Pablo Rodríguez Lozano

Irteera teknikoak (paraleloan)

- 1. irteera. Bilboko ura. Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoa
- 2. irteera. Euskal Herriko ekosistema urtarren leheneratzea. URA, Uraren Euskal Agentzia
- 3. irteera. Artibai ibaia eta bere arroa. Bizkaiko Foru Aldundia
- 4. irteera. Artikutza eta Enobietako presa. Donostiako udala.

IZEN EMATEA ETA LABURPENEN BIDALKETA

- **Izena ematea** webgunearen eskuinean dagoen “**Matrikulatu**” estekaren bidez egingo da (azken eguna maiatzaren 29a; apirilaren 30a kostu murriztuan).
- **Laburpenak bidaltzea** [FORMULARIO](#) honen bidez egingo da (azken eguna otsailaren 27a) [EREDU](#) hau erabiliz.

LIMNETICA

Bilboko AIL2026 kongresuko parte-hartzaile guztiei gonbidapena luzatzen dizuegu zuen lanak nazioarteko *Limnetica* aldizkarira bidaltzeko. *Limnetica* sarbide irekiko aldizkaria da, eta Iberiar Limnologia Elkarteak argitaratzen du. Aldizkariak ur kontinentaletako ekologiari buruzko ikerlanak argitaratzen ditu. Bere esparruan honako hauek sartzen dira: ibai, aintzira, urtegi, putzu eta hezeguneen ekologia; biogeokimika; paleolimnologia; teknologia berrien garapena; taxonomia; biogeografia; eta oro har, ur ekologia kontinentalean aplikatutako eta teoriari lotutako alderdi guztiak. Aldizkariak urtean bi zenbaki argitaratzen ditu.

Limnetica honako datu-baseetan dago indexatuta: *Web of Science*®, *Scopus*, *DOAJ (Directory of Open Access Journals)*, *BIOSIS Previews*®, *Aquatic Sciences and Fisheries Abstracts (ASFA)*, *Zoological Record*®, *Freshwater Biological Association (FBA)*, *NISSC's FISHLIT database*, besteak beste. Aldizkariari buruzko informazio gehiago eta egileentzako argibideak eskuragarri daude webgunean: <http://www.limnetica.com/es>. JCR Impactu Faktorea (2024): 1,3

Artikuluak bidaltzeko azken eguna: 2026ko urriaren 31

Helburuak

- Ur ekologiaren inguruan sortzen diren aurkikuntza zientifikoak komunikatzea.
- Ur ekologia gaietan lanean diharduten pertsonen arteko elkarrekintzak sustatzea.
- Ur ekologia gaietan hasi berriak diren pertsonen formakuntza.

Antolakuntza



Lankidetzak



Zuzendaritza



Comité Organizador AIL26

Irakasleak



Alberto Alonso Blanco

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibersitatea (EHU)

Alberto Alonso Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikertzailea da, eta bere ikerketa biodibertsitate galerak eta espezie aldaketek ur gezetako ekosistemen egituraren eta funtzionamenduan dituzten eraginak aztertzean datza. Doktoretza garaian, ibai ekosistemetan agertzen ari diren onddo patogenoek eragindako dibertsitate galeraren ondorioak ikertu zituen. Bereziki zuhaitz eta anfibio espezieen galerak eta ordezkapenak orbelaren deskonposaketan, perifitonaren hazkuntzan eta makroornogabeen, hifomizeto urtarren eta algen komunitateetan sortzen dituen eraginak aztertu zituen. Mendiko behaketa lanak eta baldintza kontrolatuetan laborategian egindako lanak (mikrokosmoetan eta mezokosmoetan) uztartu ditu. Dibertsitate galera eta espezie inbaditzaileen inguruko ikerketek gain, luraren erabileraren aldaketak, pestizidak, mantenugaiak edo tenperaturaren igoerak sortzen duten eragina aztertzen duten proiektuetan ere parte hartu du.



Manuel Graça

Universidade de Coimbra

Manuel Graça Sheffield-eko Unibertsitatean (Erresuma Batua) Biologian doktorea da. Gaur egun erretiroa hartua, Ekologiako katedradun izan zen Coimbrako Unibertsitatean (Portugal). Bere ikerketa ibai txikien ekologian zentratu da. Bereziki orbelaren deskonposaketa erregulatzen duten prozesuak eta komunitate urtarrek energia- eta mantenugai-iturri gisa orbela nola erabiltzen duten ulertzea izan du helburu. Ildo horretan, onddo urtarrak eta ornogabeak ikertu ditu, bai laborategian bai ibaien manipulazio-lanetan ere. Bere lan zientifikoa Portugal, Venezuela, Ekuador, Argentina eta Brasilgo eraketan burutu du. Aldi berean, Manuel Graça ingurumen-estresa sortzen duten faktoreek deskonposatzaileen ekologia eta aldagai funtzionaletan duten eragina ulertzen saiatzen da. Azkenik, ingurumen kudeatzaileekin eta industriako eragileekin elkarlanean aritu da ingurumen-kalitatearen ebaluazioetan, kutsaduraren aurkako neurrien eraginkortasuna neurtzeko Ur gezako uretan deskonposaketa aztertzekei buruzko liburu baten eta Hego Amerikako ibaiei buruzko beste baten editorea da.



Naiara López Rojo

National Research Institute for Agriculture, Food and Environment (INRAE) - Université Grenoble Alpes, LECA, France

Bere ikerketa aldaketa globalaren osagaiak ibai ekosistemen funtzionamenduan eta komunitate biotikoetan duten eragina aztertzean oinarritzen da. Doktoregoan, ibaertzeko landarediaren biodibertsitate galerak (espezie aberastasuna, dibertsitate filogenetikoa eta ezaugarri funtzionalak) iturburu erreken funtzionamenduan izan zuen eragina ikertu zuen, bereziki hosto hondakinen deskonposizioan, mantenu-gaien zikloan eta ornogabeen komunitateetan, baldintza kontrolatuetako laborategi esperimenteren bidez. Gainera, fungizidak eta mikroplastikoak bezalako kutsatzaileen ondorioak aztertu dituzten proiektuetan parte hartu du, ekosistemen funtzionamenduan eta ornogabeen zein anfibioen biziraupenean duten eragina ebaluatuz. Ondoren, INRAEn (Frantzia) sartu zen, non fluxuaren intermitentziak eta lehorteak ibai ekosistemen funtzionamenduan duten eragina ikertu zuen, arreta berezia jarritz karbono emisioetan, metabolismo flubialean eta mikroorganismoen dibertsitatearekiko loturetan. Gaur egun, ibai intermitenteetako biodibertsitate ereduak aztertzen dituen proiektu global bateko Core Team eko kide da, eta aldakortasun hidrologikoak ibai ekosistemen dinamika funtzional eta biotikoan duen eragina aztertzen du.



Francisco J. Oficialdegui

Doñanako Estazio Biologikoa (EBD-CSIC). Espainia

Francisco J. Oficialdegui doktorea Biologian doktorea da Sevillako Unibertsitatean, eta doktorego-tesia Doñanako Estazio Biologikoan (EBD-CSIC) egin zuen. Doktoretza ondoko aldirian, Espainiako hainbat erakundetan eta Herbehereetako zein Txekiar Errepublikako unibertsitateetan lan egin du, eta aholkularitza-lanak ere egin ditu enpresentzat eta nazioarteko erakundeentzat, hala nola Europako Batzordearentzat eta IUCNentzat. Gaur egun doktoretza ondoko ikertzailea da EBD-CSICen, Andaluziako Juntaren kontratu lehiakor bati esker. Bere ikerketa ur gezako inbasio biologikoetan oinarritzen da, ikuspegi ekologikoak, molekularrak eta sozioekonomikoak integratuz. Batez ere ibai-karramarroak erabiltzen ditu ikerketa eredu gisa, sarrera-bideak aztertzeko, inpaktu ekologikoak eta sozioekonomikoak ebaluatzeko, ekosistema akuatikoetako gaixotasunen dinamika ikertzeko eta kudeaketa eta erabaki-hartzea hobetzeko tresnak garatzeko. Gaur egun, espezie inbaditzaileen kudeaketan lehentasunak ezartzea eta balio komertziala duten espezie inbaditzaileen azterketa dira bere ikerketa-ildo nagusiak.



Patricia Mª Rodríguez González

Lisboako Unibertsitatea. Portugal

Patricia María Rodríguez González Lisboako Unibertsitateko Nekazaritza Goi Institutuko irakaslea da, eta bere ikerketa-jarduera Basogintzako Ikerketa Zentroan eta TERRA Laboratorio Elkartuaren barruan garatzen du. Bere ikerketak ibaertzeko eta hezeguneetako ekosistemen ekologia du ardatz, arreta berezia jarriz ibaertzeko landarediaren karakterizazioan, modelizazioan, ebaluazioan eta jarraipenean. Gaur egungo ikerketa-ildoek honako hauek lantzen dituzte: i) ibaertzeko landarediak faktore abiotikoez (hidroklimatikoak) eta biotikoez (inbasio biologikoak, gaixotasun emergenteak) eskala espazial desberdinetan dituzten erantzunak aztertzea, ikuspegi funtzionalak erabiliz, hala nola ekologia funtzionala, dendroekologia eta ecohidrologia; eta ii) ezagutza hori ibai-ekosistemen leheneratze ekologikoan aplikatzea. Halaber, hezkuntzan eta ezagutza-transferentzian ikuspegi berriak garatzen ditu. Administrazio publikoarekin lankidetzan aritu da Portugalen Uraren Esparru Zuzentaraua, Habitat Zuzentaraua, Ramsarreko Hitzarmena eta Leheneratze Plan Nazionala aplikatzen. Rede Portuguesa de Restauro Ecológicoko ko-koordinatzailea da, eta Society for Ecological Restoration Europe elkarteko Education and Training lan-taldearen burua.



Victor Saito

São Carlos Unibertsitate Federala. Brasil

Victor Saito ekologoaren ikerketak komunitateen ekologia, ekosistemen funtzionamendua eta sareen teoria uztartzen ditu, ur gezako sistemek ingurumen-aldaketari nola erantzuten dioten ulertzeko latitude-gradiente zabaletan zehar. Bere lana ibai-ekosistemetako sare trofikoetan oinarritzen da, eta landa-neurketak ikuspegi analitiko aurreratuekin konbinatzen ditu, ingurune kontrajarrietan elikadura-sare akuatikoetatik igarotzen den energiaren fluxua kuantifikatzeko. Organismoen ezaugarriak, gorputzaren tamainaren banaketak eta sare trofikoaren egitura lotuz, eskualde tropikaletatik epelera biodibertsitatea antolatzen duten mekanismoak ikertzen ditu, baita mekanismo horiek nola aldatzen diren tenperaturarekin, lurraren erabileraren aldaketarekin, urbanizazioarekin eta espezie ez-autoktonoen hedapenarekin ere. Bere ikerketek erakusten dute ingurumen-aldaketek ekosistemetako prozesu giltzarrietan duten eragina, hala nola energia-fluxuetan, ekoizpen sekundarioan eta interakzio trofikoaren egonkortasunean. Esperimentuak, landa-datuak eta eredu matematikoak uztartzen dituzten proiektuen bidez, bere lanak ikuspegi berriak eskaintzen ditu ibai-ekosistemen erresilientziari eta funtzionamenduari buruz, azkar aldatzen ari den mundu batean.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2026-04-30 ARTE	2026-06-15 ARTE
J-AIL, SIBECOL, CIREF ikaslea	260,00 EUR	300,00 EUR
J-AIL, SIBECOL, CIREF ikaslea ikastaro edo tailerreko antolatzailea	130,00 EUR	150,00 EUR
AIL, SIBECOL, CIREF	380,00 EUR	470,00 EUR
Gaztea	300,00 EUR	360,00 EUR
Orokorra	455,00 EUR	560,00 EUR
Pentsiodunak	260,00 EUR	300,00 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009 Bilbo

Bizkaia